Epalla-Marzo
23
Barikuba - Viernes

Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA

Bilbao'kua	6,00	irko.	iru ile
Bilbao'atazkua	7,50	"	"
Idazki-Itunmena	62,00	"	urtez
Atzarrijetakuak	100,00	"	"

Beldayen itunduba

XXII urtia ‖ Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º ‖ 234 Idazkutxa ‖ 17.810 Urrutizkiña ‖ 6.643 zenbakija

Egunekua

Aberri-Eguna

—¿Bai? ¿Ez?

—¿Ze aŕayotan zabiltz? Praile-loreaz zabiltz ala? Umekonduak legetxe: ¿Praile? ¿Monxa? Eztaukozu umore txaŕa. Sekulekua gero.

—Ez gixona. Abeŕi-Eguna ospatuko danentz nago. Batzuk bayetz eta bestiak ezetz asi diralako. Entzun egiten dogu-ta.

—Ixilik zagoz. Ezta ospatuko, ba. Beŕpizkunde, igaratz edo pasko-igandez alagalako jayak egingo dira Gazteiz'en. Aurtengo Abeŕi-Eguna iñoizkua baño ospetsubagua ixango da.

—Eztakit ba neuk. Au ta ori entzuten dira-ta.

—Entzuten dan gustija ziñistuko ba'zeunke, zoratu egingo zintzakez. Gertu zadi Gazteiz'ra juateko. Dirutxubak, be, gorde egixuz, bestela ezer barik geratuko zara. Kistu andijo dauko olako ibiltaldi batek. Trenak-eta diru asko kentzen dabe.

—Pozik naukozu. Tira, jai ori eztala atzeratuko bai'dakit.

"Yakintza"

Epail-joŕala'ri yagoken "Yakintza" jaso dogu. Zenbaki bakotxa sakonagua dala iduritzen yaku. Euzkadi'n dagozan aldizkingijetan edeŕe.jatarikua y a k u. Bizkai'ko "Euzkerea" eta Gipuzkoa "Yakintza" alkaŕen antzeko dira. Euren aldakuntzakaz, baña kideko eztiranik ezin esan.

"Aitzol" azkaŕak ba-daki aldizkingijak biribilduten. Aŕa zelaki arki-bidia daukan:

Eleŕti-sala: "On eta edeŕ", Ormaetxea'taŕ Nikola; "Artzain baten erijotzean", Urkiaga'taŕ Estepan; "Lore bikaña", Tapia-Perurena'taŕ A.; "Egunabaŕa", Estefania'taŕ J. M.

Antzeŕti-sala: "Schiller. Wilhelm Tell", Goenaga'taŕ Iñaki'k euzkeratua.

Irazkintza: Bonifacio de Etxegarai, "Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco".

Lege-jakintza: Jesús M. de Leizaola, "Uri-villa. Primera frase de la geografía histórica de esta voz en euskera".

Edesti-sala: Angel de Zabala, "Los Gobiernos militares"; P. Germán de Iruña, "De Iconografía romántica"; Angel de Irigarai, "El euskuara en Artajona".

Eŕi-jakintza: Enrique de Eguren, "Un motivo etnográfico que puntualiza conceptos".

Erseŕti-sala: P. Donostia, "Iŕi-dantzak".

Activdades de Euskaltzaleak. Bibliografía.

Grabados: Federico Schiller; Imagen romántica de la Virgen."

Zenbaki dotoria egin dauskube, beraz. Zorijonak egiliari.

"Txistulari"

Ona emen Euzkadi'ko txistulari trebien aldizkingi txukuna. Demoniñuak daukez gixon oneik. Euren txistubaz eŕiz-eŕi iratxaŕtu dabez ingurubetako txorijak. Urte luziak lanari dagoz eta orainguan goiko malaragiño igongo dira. Ilbeltz-otsala'en zenbakijan lan sakonak dakaŕez. Donostia Abearen "Notas breves de arte vasco". "Martín de Anguiozar" en "Tradiciones vascas". "Toberak", "Bera'ko txistulari ospetsuba dan Etxenike'k eŕijan batutarikuak". Menaya'taŕ Karla'k, "Reconquista de Eŕaondo" deritxon lantxuba Campión'i opalduten dautso. "Soñulari" eta "Urgozo,,'k be idazlan poliŕak egin dabez. Eseŕi-salan Olazaŕan Abearen "Litxu' eseŕki edeŕa dakaŕ. 1933'gko. urtian lenengo arija emon eutsen lan oŕi. Blazy jaunari opaldu dautso. Bots urte oneitan argitaldu diran lan eta ereseŕkijen arkibidia, be, egin dabe. Edozer gauza idoroteko lan berezija.

Euzko-Araudija

Juitzijoko egunerarte egongo gara oiz araudi oŕen zain. Zeruko atiak zabalduten oŕen beste denpora tardetan ba-dauskube, abroziduta aldenduko gara. Baña euzkotaŕak eztira neketuten. Itxoin eta itxoin, emen dagoz araudi-zain.

Españaŕak, ostera, baŕe pranko egin daroe geure lepotik. "Gaur erabiliko dabe araudi-gaya". "Bijaŕ oiz". Olantxe yatoŕkuz izpaŕingijak, baña ezerez. Naiko pazentzirik euki biaŕ da gauze askotan eta.

Ixontzija ondatu

Egun oneitako ekatxak ondorengo onik ezin euki, beraz. Atzo goxian ondatu zan Ondaŕeta-onduan ixontziño bat. Santanderaldetik etoŕan "Toñin" eritxona, ta Portugalete'ko Txuŕuka-naxaragiño eldu zanian tramankulu bat apuŕtu yakon eta urez bera juan zan. Itxastaŕak ondo uŕten iŕn, atxetan bertan geratu zalako ixontzi ori.

Errusia'ko izparra

Izpaŕ onek dirudijan baño gaŕantzi andijagua dauka. ¿Zer dan? Orain aŕteko alojerak ixaten ixan dira orduko onen beste. Zenbat ordu lanari ekin, ainbat sari. Baña langile gustijak alojera baŕdiña orduko irebazten eben. Auŕerantzean ezta oŕelakorik ixango. Bakotxak balijon daun neuŕijan sarija, be, emongo dautse. Komunistaŕen irakatsijak eperdigora duaz. Eta onez gañera ezta ixango "salario mínimo" edo alakorik.

Eŕusia'ko gixonak erabili dabezan gauzak berakada galanta sentiko dabe.

¿Udabarrija?

Pozik gagoz udabaŕi au euritsu yatoŕkulako. Zorotzat iñok aŕtuko gauz, baña pozaŕen gagoz. Bai bein. Olako eguraldi txaŕak diralko poztuten dana tentela dala esango dozube, baña egiz itz-egin daruagu.

—¿Eta zegaŕik zagoz pozaŕen, ba? ¿Eztozuz eurite ta otzaldi oneik sentitzen ala?

—Bai; eta oŕexegatik nago pozez. Udabaŕi au txaŕetan be txaŕa yatoŕkulako. Oŕelan eztauskubez bidalduko geure oleŕkarijak, arako bertso-piluak: "Oi udabaŕi edeŕa, loraz jantzija, zeure begi urdiñetan poztasuna baño eztakaŕzu. Eguzki'k laztantzen zauz. Txoijak kantari dabiltz, rliak muŕmuŕka. Zugatzetan agertu dira lora baŕijak eta uŕentxindoŕ.k dantzan egiŕen dau". Eta abaŕ eta abaŕ. Mila oŕijalde betetu-aŕte.

Onak emon dautsoz udabaŕijak. Ixan, be, neketuta egungo zan ain beste bertso entzutiaz. Geu pozik gagoz. "Lizardi" bati laketuten geuntson, baña aren kidekorik eztago. Tira, ba, udabaŕi adizkidia, euriŕan iraun zadiz.

Geure elia ta geure Aberria

ARRITOKIETA

Ilko ete zaigu ba euzkerea? Ilko ete zaigu ba Abeŕia? Geuk nai ez ba'degu ez. Geure eskuan daukagun gauza da ori.

Begira: Gizonak bere eskuan dauka luŕalde edeŕ bat, geure Euzkadi bezelakoxe luŕalde menditsu, ibartsu, baso askodun, beti orlegi, beti alai dan, eta notintza aundiak bizi itekezan luŕalde edeŕ bat, ur gabeko, euri gabeko, zugatz gabeko, landare gabeko ta belaŕ gabeko eremu itun batean aldatu al izateko al edo indaŕ ikaragaŕia.

Baso danak botako ba'lituzke, zugatz danak ebaki ta landare beŕirik saŕtu ez, luŕalde oŕetan euria gutxitzen asiko litzake, ta apuŕka, apuŕka, (ez lan edo bost uŕtean) baña beaŕ dan beste azti igarotakoan, ludiko luŕalderik edeŕena, ta alzyena, ta orlegiena, ta loratsuena eremu bat izango litzake. Aŕitza utza. Ondartza utsa. Iñoŕ ezin bizi leikean leku itzal bat.

Berdin-berdin, gizonak bere eskuan dauka eŕi bati bere gogoa aldatu erasoteko al ikaragaŕia, Jaungoikuak gauza txaŕa naiz ona egiteko azke utzi gaitu ta.

Augaitik diot geure elia ta geure Abeŕia geuk nai ez ba'degu ez dirala ilko. Geure eskuan daukagun gauza da ori. Geure eliari iltzen utzi ez eta gañera biztu, sendotu ta gogoŕtu geuk nai ba'degu eŕaz -eŕaz egin gentzakean gauza da. Eŕaz -eŕaz.

Ara, gure eliak gauza bat bakaŕik eskatzen digu: erabiltzea, erabiltzea ta erabiltzea.

Arantzadi jaunak bere idazti edeŕ batean oraindik orain esan du: Gauza lotzagaŕia dala, len, danok Manuel ta Ignacio, ta Enrique ta Jose ta María ta abaŕ izenak genduzanean danok euzkeraz egiñik, orai ndanok Imanol, ta Iñaki, ta Sabin, ta Miren ta abaŕ izenak ditugunean euzkera gutxitzea ta galtzea. Eta neuk ere berdin diot.

卐 卐 卐

Neri euzkeldun bi eŕderaz mintzatzen ikusteak negaŕ egitek gogoa ematen dit.

Eta iñoiz, euzkel-oŕatza papaŕian duten emakumeak eŕderaz izketan aŕapatzen ditutan bezela) ezin igaro izaten naiz euren ondotik, neu bizi naizan eŕiko euzkeraz auxe esan gabe: "Ekin, ekin, zuek belaŕimotzen berbeta edeŕ oŕi, gure aŕtean eŕderarik gastan ez daiten. Lastimia ixango litzake ixan be, gastetia ta".

Nik uste nuan euzkel-oŕatza euzkera dakigun agiri bat, eta euzkeraz egiteko baldintza ezartzen zigungauza bat zala.

Ni bein, Sevilla'ko kale baten gizon batek, euzkel-oŕatza neramalako, euzkeraz aguŕtu ninduan. Bermeo'taŕa izan zan bera, itxasontzi batean zebilena.

Beste bein Granada'ko kale batean gizon bi neuk euzkeraz aguŕtu nituan, euzkel-oŕatza zeramatelako. Donostiaŕak ziran.

Au, gauza atsegingaŕia da, erbestean, atzeŕian, Abeŕitik uŕuti, geure abeŕkidiak, eta gañera euzkeldunak bilatzea ta euzkeraz egiten. Biotza gustiz zabaltzen duan gauza da au, baña, ¡Azketzi, baŕkatu, ene abeŕkide maiteok, oŕegaz ez degula ezer egiten esaten ba'dizutet!

Euzkera beaŕ degu, ez gure ama-elia dala ta, bera noizian bein entzutiaz gure biotzak samuŕtzeko bakaŕik.

Euzkera beaŕ degu ¡entzun ondo! "geure abeŕitasuna aldeztuteko, belaŕimotzat Euzkadi'tik uxatzeko, ta geure Abeŕia azkatuteko".

(Daŕaike)

Euzkerearen iltzalliak eta errija

Euzkerearen iltzale bene-benetakuak eta bera erijotzaldijan edo iltamuan uri ta albuetan jaŕi dabenak, iltzaliak autoŕtu gura ezta, dabiltzazan ezkero, esan daigun nortzubek gitxibat gora-bera diran, Euzkerea kaltezko lanan diñardubenak uŕteko egunek dabezan ogeta lau ordubetan. Dan gauzea alegiñez dan bestian esan gura neuke, atzeŕi ustez eta eŕdel-lañoz gogo ta begijak lauso bat egiñik daukezan aundiki ta txikiki, aberats eta aberge-txiro, ikasidun eta ikasi bako, euzkotaŕ eŕdelkoŕ utz-utzak ezertxu ikusi alba dabe Euzkerearen iltzalietzaz.

Ainbat euzko-seme ta alabetatik, Euzkerearen iltzaliak ¿nortzubek ete-dira ba? Euzkel-idazliak be ¿bai ete-dira? Iñola -iñola be, ez ori. Euzkel-idazliak, gurasuakandik aŕtu genduban euzkerea, obeto irakatsi baño eztabe egin, euzkerearen lepoko saldaŕ gaiztuak eurekan dan giñon zerbait garbiŕuta. Anei (mila) eskaŕ euroi, tayuz dakigun euzkera apuŕa eurek dirala-ta ikasi dogulako. Dakigun baño geyago ezpa'dakigu, geure obenez eta eŕuz da, gauŕaŕte irakatsi daben gustija, ikasi eztogulako, "sarta-sarta" maŕemenez (1) euzkerea-egin eta idatzi ezaz.

Euzkel-idazliak euzkerearen irakasliak, be, ixanik ¿zelan berau aztu eragin leye? Irakasliak, irakaslia danez, eztakijenai irakatsi dagiyoe, batez-be euren iñarmena ondo betetan dabenian. ¡Aintza ta bikañetsija (honria) euroi, oŕen lan astuna Abeŕi -eliaren (cariñoz) maŕemen eta ondonaiz zindoro dagiyelako!

Euzkeldun, erdi buru-motzok, beste euzkeldun burutsu-burutsu ta adimen argidun txuntxuŕen-txuntxuŕengo ta gane-ganekuak baño, geyago ta geyago euzkeraz biaŕ ba'da ¿zegaŕik dakigu? Ze edo a Euzkerea aldez asti-unan, egunoro oldozten dogulako. Batzubek egiten dabena, beste gañerako askok eta askok ¿zegaŕik eztagija? Euzkera gaizkaliak baño, iltzaliak geyago diralako. Ona emen iltzale-talde edeŕa. Euzkerea aldez zirkiñik be eztagijena ta kaltez edozenbat dagijana. Eŕijak, euzkereari begi ilun eta goŕotua lakua ¿zegaŕik ete-dautso? Au eztakijanik eztot uste, iñoŕ dagonik. Euzkotaŕ izkidun (letradun) "vascongadu" gustijak laŕ be bai'dakije. Zaldun, aundiki, yakiŕunen eta bestelakuen aguan Bilbao, Gazteiz, Iruña ta Donostian legez, Durango ta Billaro'n, Markina ta Ondaŕoa'n, Gernika ta Mundaka'n, Bermeo ta Elantxobe'n, Ibaŕangelua, G. Arteaga ta Busturia'n eta gañerako urijetan ikusiko ba'leu eŕijak Euzkerea bere edeŕkunez (hermosuraz) "señorito edo señorita bien" bat eginda aundiki-aundiki, ordez eŕderea ikusten daben legez, pozik be pozik abegiz eta maŕemenez berau erabiliko leuke Canovas'lako gastelaŕen bat ixan ezik. Baña eŕijak iruntzetara dakus, zatirik, goyengo ta nausijenak gastelaŕ eliaren menpian saŕtu-saŕtuta deukiela, beti praka-zaŕ, yopu baten antzera, maŕuz-maŕuz ostikopian Euzkerearen bixijak, "ante todo vascongadu" sendijak. Ele auzijan, zure-niriari begiratuge, eŕijak "señorita bien "eŕderiaganatz darua bere maŕemena, goi-goyan lenengo asita bera. Tamalez, euzkotaŕ aundiki ta izkidunak (letradunek) galdu dabe Euzkadi'n euzkereaganako maŕemena eŕian euren eŕderaz ixiltzen eztan txiŕintoliagaz. Gauŕ be, atsedenge diraube lan gaizto oŕetan, ezetariko neska baga azpilduran dagon zoŕijari baño geyago eztakiela. ¿Iñoŕ ba'dau Euzkerea'en iltzale gaŕatzenak eztakusenik? Ba'dago be, agirijen egundo ba'da eztabiltzazalako, ezta. ¿Ezta egija?

Eŕijaren Euzkerea, berau il eztau tokijetan, "vaskuentze-erderismo" gexo-gexoa dago. Ta gexua adijonez osatzen ezpa'da, bere menbian artzen dabena il dagi (amaŕ euzkerea be ilteko sendi "vascongadubak" dira naikua) ta il, aldikuzia baño len.

Eta eŕijaen Euzkerea makaldu-makalduari bere bixi erkiñan eutsi ta eŕija bere maŕemenan, baŕiro goŕik-bere saŕtzeko ¿zer da euzkotaŕek egin biaŕ doguna? Euzkel-zaraketia; soluaren gañeko bedaŕ -zaskaŕak kentzeko neketzaliak atxuŕ-zaraketea egin oi-daben legez. Esan gura dot, euzkeriaren gañeko bedaŕ-zaskaŕak galdu, azal-azaletik asiŕa, baŕurantz sartunez. Umiei ikastolan lenengo "izkijak", gero "izkiñak" eta geruago "itzak" esaten irakasten yakubezan legetxe-aŕe. Antonio albokok "tripan", "tumoŕa" ei-deuko. Bijaŕ "Hijas de María", "Primer viernes", "Primera Comunión"...

Aŕek edo Amak semiari, alabeari edo etseñari: —Zelan esan dok? Zelan esan dona? eta gorakuari ¿zelan esan dozu? Euzkeraz ¿olan esaten da? Ezpa'daki semiak, alabiak edo besteren batek euzkeraz esaten, norberak zuzen esan. Auxe da euzkel-zaraketia. Oŕetarako euzkel-akuludun zikilarijak be biaŕ dira; txapel-okeŕak ezer esan ezkijen, akulu gan bakuakaz ixan biaŕ da (euzkeldun askoren aŕtian, zikilada zolijen bieŕ ixena ikusi-ta be). Euzko-seme ta alabak, abeŕi eliari maŕemena ba'deutse, ilez duan Euzkerea yagoteko aldi-egokijan idoriten dira, nai ba'dabe ezer egin.

Sendi "vascongadubek" gastelatxi bidiari auŕera be gaŕatugurako deutsie. Euzko -eliak laguntasun on-gitxi bixiteko eurokan "topeuko" dau, aldatzen ezpa'dira.

Ikusiko da ba, au irakuŕtekuan, uri bakotxan zeinbat sendi ta euzko-batzatan, euzkel-zaralari ta akuludun zirikari agertzen diran, gexodun euzkereaen aldez, euzkotaŕ "vascongadu" gastelaki utzak zenbatu barik.

Euzkerea gexoz ganera erdi-biloxik be gauza askotan dago. Besten janzkijakaz jantziten dana be, ain ondo eztabil. "Señorito edo señorita bien" usaña bein edo bein Euzkereak be ixan dayan eta oŕegaz batian beragunako maŕemena eŕijan goi -goŕik beragiño saŕtu dedin, lenagoko opil otzara-opila lango otzara zabal andi bat bete euzkel-itz baŕi, euzkel-lagiz eratubak eta ikuŕpen betedunak, uŕenguok diran lez: "Abeŕi, abixen, Batzoki, Doibatz, gotzon" eta abaŕ, sulo ta taŕatada aundi-aundijak eztaltzeko "Euzkeltzaindi'tik" edo beste toldiren batetik ageŕtu ba'leike, neronen ustez, ondo be ondo etoŕiko litzake, euzkerea, biloz baztaŕtubarentzat. ¿Ezete da agertuko?

Euzkel-itz otzarakada ori ikusteko ixango ba'nintz, benetan poztuko nintzake.

MAŔALE.

(1) Maŕemen (cariño, afecto).

¡Ezetesia...!

Neskatila bateri.

Landu-bage neban
biotz-solua;
sasi ta otez agiri zan
eŕime baŕetua.
Maite-atxuŕa aŕtu
ta landara bat dot
emeki landatu.

Izotz batek jo dau
ene landarea,
ta eratsi...
¡Oi, neskatil, leen-maite!
¿zergaitik, baña,
zergaitik nozu
ezetsi?...

Endaitz.

ZARAUZ

GAZTEIZ'ERA.—Araba'ko uri nagusi ontara, Abeŕi-Egunean joateko, gar aundia nabaitzen da zarauztaŕen aŕtean. Baña badira joateko asmoa izanaŕen, Euzko -Etxea'n jaŕita dagon oŕitxoan beren izen -abizenik oraindik jaŕi ez dutenak. Ibili ba, garaiz, belbil ta bultzirik gabe gelditu nai ez badezute.

Mendigoizale batzuk oñez dijoaztela entzun det.

EUZKO-LANGILEAK.— Beren ikuŕin -onespenaren urtebetetzea ospatzeko jai edeŕak egin dituzte, Joseba deunaren egunean. Beren Abesbatzak abestutzko jaupa edeŕakin eman zioten asiera jayari, kistaŕ zintzoeri dagokion eran, langile geyenak bertaraturik. Au amaitu zanean ildako euzko-langilien gogo aldez ilotoya otoiztu zan.

Pelota-partidu edeŕak jokatu ziran "Cinema" joka-lekuan.

Amilibia'ren jatetxean egin zuten apari -meriendakin eman zioten amaya Joseba deunaren egunari.

ANTZEŔKI-JAYAK. — Lengo astelenean zarauztaŕ antzezlariak Getari'ra joan ziran antzeŕki jai bat egitera, ta esan digutenez oso pozik etoŕi ziran, getariaŕak egin zioten aŕera onagatik.

Eskeŕik anaikoŕenak zarauztaŕ antzezlarien izenean getariaŕ gustieri.

卐 卐 卐

Igazi dan igandean egiterik izan etzutelako, antzeztu gabe utzi ziran "Egintzak on" eta "Noiz ote datoŕ?" antzeŕkiak, datoŕen igandean egingo dira (J. L.) Emakume Abeŕtzale-Batza'ren aretoan.

ZABALA.

Deunen bixitza

Liberata deuna ta bere beste lagun ziñopak

Kistaŕen areriorik amuŕatuenetakoa izan zan Genserika, apiŕkaren eŕegea; baña areago izan zan aren seme Gunderika. Aŕiotaŕen aldeztzale sutsu zan au ta izugaŕia, benetan, aren agindupean kistaŕen auŕka aizatu eben jazarpena. Lau milatik gora izan ziran arek indaŕez erbestera bialdutako elizgizonak; eliz asko luŕeratu ta biŕindu zituan; lareun mila baño ziñopa geyago il ziran oñazepean aren atzapaŕetan. Ziñopa onein aŕtean, aipatuenetakoa izan zan Liberata deuna.

Cartago'taŕa zan jatoŕiz eta osalari, gañera, Uskurtzalea ta zintzoa izan zan, agian, gizon au. Aitatzat artu eben txiroak; ainbesterañokoa zan Libetara'ren biozberatasuna. Itzal aundia eutsoen kistaŕak gizon oni. Eŕegeak agindu eban garai atan, kentzeko judaŕez gurasoai euren semeak eta aŕiotaŕen uskurtzpean azteko gaztetxo gustiak. Onelaxen kendu eutsoezan Liberata'ri be seme bi. Geroxeago bere sendiaz erbesteratua izan zan.

Semiengandik uŕun egoala, naigabeak zulatzen eban zoŕozki biotzean. Kistaŕen uskurtzaretzaz aiztuta, aŕiotaŕ egingo ete -ziran kezkak ziztatzen eban biozpean. Igaŕi eutson bere emazteak kolkoan erabilan oldozkuna ta sortzen yakon samiñaren ituŕia ta esan eutson: "Semeai dautsezun maitasunak galdu beaŕ al-zaitu? Etzaitez ainbeste kezkatu semeakaitik. Josukisto'ri dautsogun maitasunagatik kendu dauskuez. Bera kzainduko ditu guk baño obeto".

Auŕera zutik eta tinko jaŕaitzeko gogoa piztu eutsoen biozpean Liberata'ri ugaldeka, emaztearen itz sutsuak. Ondo ekian lasteŕ yoakiola gañera zgoŕa eta etzala izango txantzetakoa basati areik ezaŕitakoa. Atzeman zituen senaŕ-emazteak eta espetxe bitan banaka jaŕi zituen. Ikaragaŕiak izan ziran areik jasaniko oñazeak eta zigoŕak.

Ontan, ordea, emaztearengana jo eben iltzaleak maltzurkeriz. Aŕpegietan alaitasun-iŕiñoa eroela uŕeratu yakozan emakumeari eta adierazi eutsoen bere senaŕa ariotaŕ egin zala. Arek erantzun eutsen, baña: "Erakutsi egistazue, ba, nire senaŕa. Ordun erabagiko dot egin beaŕ dodana".

Bere senaŕa egoan aretora sartu zanean, burdin-katez lotua idoro eban Liberata ta ikusi ebanekoxe, an doakio arin emaztea ta diñotso: "Egia al-da, ba, esan dautsena? Jaungoikua ukatu al-dozu sinestegaldu eŕukari oŕek? Zertarako dozuz orain zure izena ta zure aberastasunak, egikera lotsagaŕiz zure izen ori loitu dozun ezkero".

Onelan yoyan gainbera emaztearen itzjario sutsua; baña lasteŕ igaŕi eban Liberata'k maltzurkeriz atzipetu ebela areioak eta erantzun eutson: "Zinismena eztu dodala esan dautzue arerio galzto oneik eta zuk ainestu egin dozu. Eratsi egizu asaŕea. Jakizu katek oneik eztirala niretzat astun eta nekegaŕi, zoli ta bigun baño. Josukisto'ren maitasunagatik itxi genduzan gure ondasun danak. Beraz, arek lagunduko gaitu azkenerarte. Aren laguntzaz, gurea izango da garaitza".

Eriotzara epaitu ta zigortu zituen, azkenik, senaŕ emazteak eta beste kistaŕ-aldra ugaria be. Oñaze izugaŕien menpean il zituen ziñopa adoretsu biok. Etziran, oŕatio, biak bakaŕik izan jazaŕaldi onetan, odola ixuriz, ziñopaen buruntza irabazi ebenak.

Ara Bite'ko gotzain Bitoŕ deunak edesten dauskuna. Bere begiz ikusi eban gotzain onek saspi urteko umetxo samuŕa, amaren besoetatik aterata, iltzen. Zartatzen eben bitaŕtean, gaztetxoak oyu au jaulkitzen eban atergabe: "Kistaŕa naz ni".

Beste jazokun bat be edesten dausku aitaturiko edeslariak. Elizgizon izaniko sinestegaldu sabelzuri batek, len bere zaintzapean ibili ziran amabi mutil ikusi zituan kistaŕen aŕtean. Deitu zitun eta bigunkeriz eta aŕenka makurtarazinai izan zituan. Ez eutsoen jaramonik egin gaztetxoak lengo ikasle sabelzuriari; zutik iraun eben sinismenean. Ankerkiro makilkatu zituen gero gaztetxuok eta zauri bizian odolustuta, il ziran danak. Jaŕaigaŕi, benetan, gaste onein zutitasuna.

Liberata'rena gañera, beste deun onein gustien oroitzapena baŕiztatzen dau gauŕ Doibatzak.

A.'TAŔ T.

DURANGO

GAZTEIZ'ERA. — Gaŕ aundija dago emen Abeŕi-Egunerako. Aste betian sei belbil betetu dira ta orain lanian ari da gure Batzokiko bazkintza aŕtezkaritza belbil geyago loŕtuteko ba asko dira juan nai ta tokirik eztaukenak. Oñaz juango diranak, be, asko dira.

AŔPIDIA.—Batzoki baŕijan biaŕko diran mai, jaŕleku ta beste enparabak erosteko aŕpide bat zabaldu'da Tabirataŕ Batzokijan. Baskintza artezkarikuak ondo irakatzi dauskube zer egin biaŕ dogun, euren sakeletik mila lauŕleko emonik. Emon dagigun ba gustijok al-doguna.

LANBAKUAREN ALDEZ. — Ile bi baŕu inguru asiko dira emengo emakumiak, lan barik aurkitzen diran euzko-langiliari egunero jatekua emoten. Sukalde ta jantokija Batzoki baŕijan ipinten ari dira ta arazo onek emongo daben lana lan ixugaŕija ixango dan aŕen, emakumiak eurak bakaŕik egiŕeko asmua daukoe. Oŕi da oŕi, gure euzko-anayaen aldez ondo lan egiŕia.

EUZKEL-IXENA. — Gorostizaga'taŕ Kuireka ta Urkiza'taŕ Elixabete'k ezkontzako lenengoko igalitzat neskatotxu edeŕ bat euki dabe ta euzkotaŕ onak dirala ageŕturik Miren Itziaŕ euzkel-ixen txukunak jaŕi dautsoe. Aŕa-ama bitxijak, Gorostizaga'taŕ Terese ta Gergori, Kuireka 'ren neba-aŕebak ixan ziran. Aŕtu egixubez zorijonik beruenak eta ondo irakutzi zuben umetxu oŕeri euzko-abeŕtzaletasuna.

JUAN-ETOŔIJAK.— Madrid'era juan da, gure Batzokiko lendakarija dan Belaustegigoitia'taŕ Perderika euzkeltzale ona.

—Bilbao'ra, Eŕenteria'taŕ Augustin abeŕkidia.

—Oviedo'tik etoŕiŕa emen aguŕtau dogu Agiŕe'taŕ Joseba Iñaki ikasle ta abeŕtzale zintzua.

—Murcia'tik, Aranaga'taŕ Jon Joseba, Astarloa-Etxeko lendakarija.

—Itxasaldetik, Zurikarai'taŕ Pantzeska, abeŕtzale gastia.

Gazteiz'tik euren sendijak ikeŕtutera etoŕita emen aguŕtau doguz Ruiz-Angoitia'taŕ Alberta bere emaztiagaz, eta Eizagiŕe'taŕ Bingen.

Gudaltzatik, egun batzuben opoŕ-aldija igarotzera, Usategi'taŕ Aniketa abeŕkidia. Ondo etoŕijak.

ERIZAIN BAŔIJAK.—Gure udaletxeko karlataŕak beste lau eŕizain ixentau dabez eta laurak ¡jakiña ba! karlataŕak. Ikusten danez, igaŕi dautsoe lasteŕ amatu biaŕ yakoela udaletxeko nagusitasuna ta astiro-astiro, banaka saŕtu biaŕian, lenago oiŕuten eben kegez, asi dira eurotaŕak piloka "entxufatzen".

IBAIZABAL.

SEGURA

ASTE DEUNA.— Auŕekoan aitatzen genduen, auŕten Aste Deune'ko edo Aste santuko ibildeun edo prozesio entzutetsuak izango ote ziran zuŕumuŕuak zeudela eta gauŕ esan gentzake, Jaungoikua lagun Segura'n orain bi urtera aŕte egin izan diran Ibildeun edo prozesioak egingo dirala. Eta len Aste Deuneko Elizkizun eta Ibildeunetara, gogoz ozte edo jendea etortzen bazan, auŕten gogotsuago etoŕiko dirala uste degu, onelako elizkizun eta ibildeunetarako gure eŕiak daukan jayera agertuaz. Baña ezta naikoa ozte edo jende asko dijoalako bakaŕik elizkizun eta ibildeun auetara jutea. Oroitu beaŕ degu elizkizun eta ibildeun auek Jesukrstoren Nekaldi eta Eriotza gogorazten dizkigutela eta gertaera aŕigaŕi ayek gogoratuaz gabiltzan ikasbidea eman beaŕ degu, gere egite eta ibileretan.

AGUŔTU.— Igandean aguŕtu genduen Ataun'go Munduate'taŕ Tome Emakume Abeŕtzale-Batzakoa. Eta Zumaŕaga'ko Alzelai'taŕ Birkide au ere E. A.-B.'koa.

—Baita ere agurtu ditugu Aramayona'ko Agiriano'taŕ Bernaba eta beste abeŕtzale talde bat Auek abeŕtzaleai dagokien bezela Batzokira etoŕi ziran.

¡Beste bat aŕte!

—Uŕetxu'ko Osalari Aranburu adizkideari ere emen bostekoa estutu genion.

MENDIGOIZALEAK.— Joseba deunaren egunean, gu Jaupa edo meza nagusian geunden bitaŕtean Tolosaŕ Mendigoizale batzuek gure Batzokia ikeŕtu edo bisitatu omen zuten, guk agurtzerik izan ez bagenduen ere.

ABEŔI-EGUNA.—Igaratz edo Pazkoa eguna gerturatzen eta arabataŕ gure anayak besaŕkatzeko gogo geyago nabaitzen da eta ¡aŕitzekoa! geyagok jun naita erezin, ba-da belbil edo automobil guziak bete dira. Onegatik oraindiokoen azkaŕien bat ikusteko gera Gazteiz'en.

TXISTULARIAK.— Gazteiz'en Abeŕi -Egunean "Txistulariak" egingo dituzten erestalditara Galartza'taŕ Jakinda txistularia juteko dala jakin degu.

OTAŔA.

LAZKANO

SASKI-NASKI. — Eleizakoak aŕtuta bere bizitzako 74 uŕtekin il da. Oŕmazabal 'daŕ Iñake, "Mendizabal-Txiki,,'ko amona (Goyan bego).

—Baita ere eleizakoak aŕtuta il da, 16 uŕtekin, Ayeŕdi'taŕ Gabin, "Izaŕe-erdi,,'ko mutil gastea. (G. B.).

Oek bik kistaŕ zintzo, eta onak izan dira, oŕegaŕik euren eriotzarekin, eŕi guzie naigabeturik gelditu da. Nere samin aguŕa, bien sendikoai.

卐 卐 卐

"Beko-kale,,'ko Castro'ren emazteak, auŕtxo bat izandu. Zorionak.

卐 卐 卐

Amerika aldera juan zaigu, Auzmendi 'taŕ Maŕgarite abeŕkidea. ¡Ondo ibili, Margarite!

卐 卐 卐

Astelenen gure aita Joseba Deuna'ren eguna zala ta bere aintza eleizkizun bereziak egin dira notin asko, eureganatuaz. ¡Aintza Joseba Deuna'ri!

卐 卐 卐

Eŕi ontako J. E. L. agintariak agindu didate, izpaŕingi bidez aitzera emateko, Beŕpizkunde (paskoa) igandean Gazteiz (Vitoria)'en ospatuko dan (J. L.) Abeŕi -Eguna, edo dalako jai abeŕkoi oŕetara, juateko asmoa dutenak, alduten azkaŕena izenak eman doitzela Batzokija'n, beranduta gero damutan gelditzea, alpeŕik izango dala ta...

Lazkaotaŕak, ¡eup! Beŕpizkunde igandean denok Gazteiz'a, Araba'ko anayakin, egun edeŕbat igarotzera.

Alegindu zaitez geure abeŕi onetan Euzkerea erabiltzea, biaŕezkua egiŕeko Oŕi iritxita ¡ez ezpairik izan! eztu iñok euzkerarik aztuko" (Arana-Goiri).

Arana-Goiri'taŕ Sabin'ak esan zuan itz au ez dago ukatzerik. Erabili zagun oba gure euzkera maitea aztu ez dezagun, azten dan ele (idioma) aren abeŕian, lizunkeri aundiak saŕtzen dira ta...

IRAMENDI.

EUZKO
JEL - ASTEROKO IZPAŔINGIJA
Larunbatetan agiri ixaten da
Euzkelduna: Abertzalia ba'zara, erosi ta irakurri biar dozu asteroko au.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3. DONOSTIA

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

ARRIETA - BITXIZALEA
Legazpi, 10. - DONOSTIA. - Urrutizkiña, 13.777



EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
L. LEGARISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas) — GIPUZKOA